

Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaile talde gazte bat Txinara joateko prestakuntza azkarra jasotzen ari da

*EHUko Informatika Fakultateko ikerkuntza talde bateko **lau kide** erraldoi asiarrera bidaiatuko dute irailaren erdialdean bertan hiru hilabete igarotzeko.

*Bidaia, Adimen Konputazionalaren alorreko **Txinako eta Europako** puntako ikerkuntza taldeen arteko **elkar-trukaketa proiektu baten barruan** kokatzen da.

*Joan aurretik, EHUko lau ikertzaileak **hizkuntza eta protokoloko oinarrizko ezagutzak** jasotzen ari dira **Gipuzkoako Txinatar Institutuko** ikastaro berezi batean.

EHUko Informatika Fakultateko Intelligen Systems Group ikerkuntza taldeko lau kide irailaren erdialden Txinara bidaiatuko dute, bi Shanghaiko Jiao Tong Universityra eta beste bi Nanjing Universityra, biak izen handiko erakunde akademikoak mundu mailan, joango direlarik. Hiru hilabetez luzatuko den esperientzia honen helburu nagusia Europa eta Txina arteko ezaguera-trukea da, azkeneko herrialde honetan sektore hau hazkunde azkar batean dagoela kontutan harturik.

Lau gazte hauetako ikerkuntza taldeak NICAIA proiektuan parte hartzen du, beste bi europar eta lau txinatar unibertsitateekin batera. Adimen Konputazionalaren alorreko Txinako eta Europako ikertzaileen elkar-trukaketan oinarrituta dago eta sektore honetako mundu mailako ikerkuntza talde onenatarikoez osatuta dago proiektua. Bere lana informatikaren eta matematikaren bitartez eguneroko edo enpresen arazoei interbide berritzaileak bilatzea da.

26 eta 28 urte bitarte dituzten gazte ikertzaile hauentzat (bi bizkaitarrak dira, bat donostiarra eta bestea kanariarra) “lan egiteko beste modu bat” ikasteko aukera bikaina da. Batzuetan “desikasi behar da pentsatzeko era berriak bilatzeko eta burua irekitzeko”, dio Ibai Roman, beraietako bat.

Roman eta beste hiru taldekideak, Usue Mori, Ari Urkullu eta Jeronimo Hernández, egun hauetan bere bidaia prestatzen ari dira hizkuntza eta protokoloko oinarrizko ezagutzak eskaintzen dituen Gipuzkoako Txinatar Institutuko ikastaro berezi batekin. Beste taldekide batzuk dagoeneko Txinan izan dira eta horregatik ondo dakite bi herrialdeen arteko desberdintasun kulturalak asko direla. “Mundu guztia ikaragarri harrিতuta itzultzen da”, azaltzen dute. “Talka kulturala handia da”, ordutegietatik hasita, Txinan “beranduago irtetzen baitira eta asteburuan ere lan egiten dute”.

Ikastaro honekin estutasunetatik ateratzeko gai izan nahi dute, komunikatzeko arazo nabarmenekin topatuko direla badakite eta. “Keinuekin eta guzti arazoak izan dituzte

lagun batzuek komunikatzeko”, diote. Mota hauetako egoerak saihestea da hain zuzen ere ikastaro honekin bilatzen ari direna astebete barru Txinako bidea hartuko duten lau gazte ikertzaile hauek.

Informazio gehiagorako (elkarrizketak ikertzaileekin eta Gipuzkoako Txinatar Institutuko irakaslearekin):

raquel.rodriquez@institutochinodegipuzkoa.com

638 426 502 / 943 431 789

